

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Ikusita produktuaren diseinu bakar batek ez dituela kontsumitzaile guztien beharrak asetzen merkatua segmentatzea erabaki dugu. Gure enpresak helburu bakar bat aurrera eraman nahi du; betaurrekoek duten arazo nagusienetariko bati konponbidea ematea.

Gure betaurreko berezi hauek biztanleria osoari zuzenduta egon arren, adin txikien segmentuarentzat ez da gomendagarria, beraz gure marketing estrategia ez dugu segmentu horretara zuzenduko. Material gogorraz eginda dago baina betaurreko normalak baino apurkorragoak izan daitezke botoien mekanismoa dela eta.

Bezeroen ezaugarriei dagokionez, gure produktuen erabiltzaileen ezaugarri nagusiak hauek izango dira: ikusteko zailtasunak izatea, nagitsuak izatea betaurrekoak garbitzeko orduan... Horrez gain, eguzkiko betaurrekoak diseinatuko ditugu ere, kristalak ez lausotzeko funtzionamenduarekin noski, hori baita gure produktuaren helburua.



Ezaugarri hauek gure betaurrekoak erostera bultzatzen dituzte. Nagitsuak izaten jarraitu ahal gara

klik batekin gure betaurrekoak distiratsu eduki ahal ditugulako.



Irizpide geografikoak kontuan hartu behar ditugu ere, zuzenduko garen merkatu segmentua definitzerako orduan. Gure kasuan, Euskadin saltzen hasiko gara. Gero, gauza ondo badoa Espainia osotik zabaltzea gustatuko litzaiguke. Denda berriak zabaltzea edota online aukera bertara zabaltzea.